

EUSKARA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Eñaut Guruzeaga Nahikari Alustiza Aide Txokarro	Maila	Batxi 1	Ikasturtea	2020/2021
------------------	---	--------------	----------------	-------------------	------------------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Ikasgai hau derrigorrezkoa da eta astean lau saio izaten dira.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK (Ikus denboralizazioa)

	A1	A2	A3	B1	B2	B3	D1	D2	D3
1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X	X	X	X	X	X	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.		X			X			X	
3) Gaitasun digitala.	X	X	X	X	X	X	X	X	X
4) Ikasten ikastea	X	X	X	X	X	X	X	X	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X			X			X		
6) Ekimena eta ekintzailtza.	X	X	X	X	X	X	X	X	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.			X			X			X

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Mintegiko programazio didaktikoan ikusgai eta honako lotura honetan:

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK eta SKOLAE

[BATX CURRICULUMA](#)

- 1.- Ahozko komunikazioa: entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta elkarrizketan jardutea.
 - Gizarte hedabideetatik datozen ahozko testuak ulertzea eta ekoiztea.
2. - Idatzizko komunikazioa: irakurtzea, ulertzea eta idaztea.
 - Testu tipok eta motak: azalpen eta argudio testu idatziak ulertzea, ekoiztea eta antolatzea.

- 3.- Hizkuntzaren ezagutza: Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.
- Deklinabidea.
 - Aditza. Aditz laguntzailearen eta aditz trinkoen forma erabilienak.
 - Egitura sintaktiko soilen eta konplexuen gaineko behaketa, gogoeta eta azalpena.
- Testuetako lotura logikoak eta semantikoak.
- Euskaltzaindiak hizkuntzaren batasunerako emandako arauak.
 - Ortografia arauak eta arau tipografiko erabilienak.
- 4- Hezkuntza Literarioa.
- Literatura XVI- XIX. mendea.

SKOLAE

Onintza Enbeitaren testu baten ildotik (*Haserre*, Berria egunkarian argitaratua), lidergoa landuko da *Nor ateratzen da argazkian?* Jarduera eginez. Irakurgaiei zein testuei lotuta, ondorengoko gaiak landuko dira: *“Nire historiaren protagonista naiz”, “Lan bat nire proiektu pertsonal askerako”*.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

BATX CURRICULUMA

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-1/

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
15 (A1)	Testugintza: Testu tipo eta motari hurbilketa. Azalpen testua. Komunikazioa. Egitura: ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. Gaia eta laburpena.	19 (A2)	Testugintza: Argudio testuak I. Igorlea: asmo komunikatiboa. Hizkuntza erregistroak.	20 (A3)	Testugintza: Argudio testuak II. Modalizazioa.
23 (B1)	Deklinabidea. Aditza. Kohesio eta koherentzia mekanismoak. Euskaltzaindiaren arauak. Ortografia arauak eta arau tipografiko erabilienak. Kategoria gramatikalak Hiztegia. Sinonimoak.	20 (B2)	Deklinabidea. Aditza. Perpau bakuna. Kohesio eta koherentzia mekanismoak. Euskaltzaindiaren arauak. Ortografia arauak eta arau tipografiko erabilienak. Kategoria gramatikalak Hiztegia. Sinonimoak.	17 (B3)	Perpau elkartuak, juntaturazkoak eta menderakuntzazkoak. Kohesio eta koherentzia mekanismoak. Aurreko eduki guztien birpasoa. Kategoria gramatikalak birpasatu Hiztegia. Sinonimoak.

3 (D1)	Literatura.	3 (D2)	Literatura.	3 (D3)	Literatura.
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK					
<p>Departamentuan sortutako apunteak erabiliko ditugu. Azalpenak jaso ondoren etengabeko praktikan datza gure metodologia. Bakarkako lanak zein talde txikikoak ere burutuko dira. Erreferentzia beti testua izanen da; hori da gure euskarria: jorratuko ditugun edukiak liburuak biltzen dituen testuetan praktikan jarriko dituzte. Jorratuko ditugun testu horien aukeraketan generoen arteko berdintasunaren ikuspegia kontuan hartuko da, landuko den alderdi garrantzitsua izango baita.</p>					
EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA					
EBALUAZIO ESTANDARRAK					
<p>http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-1/</p>					
<p>1.-Azterketa zein lan guzietan zuzentasun gramatikala ezinbestekoa izanen da, oinarriko ezagueretan (ergatiboa, aditzaren komunztadura eta ortografia) huts bakoitzeko 0.1 kenduko zaielarik.</p> <p>2.- Etengabeko hezkuntza dugunez, hiruhilabete bakoitzeko azterketak aurrekoetan emandako gaiak ere bilduko lituzke. Lehenbiziko ebaluaketak %20 balioko du, bigarrenak %35 eta hirugarrenak %45.</p> <p>3.-Erabiliko ditugun tresnen balioa honako hau izanen dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edukien gaineko azterketak %70 • Lan edo froga idatziak nahiz ahozkoak (laburpenak, testu iruzkinak, irakur liburuak, literatura...) %30 					
ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEKOAK					
<p>Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da. - Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da. <p>Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.</p>					
ERREKUPERAZIO SISTEMA					
<p>Ikasleak ebaluazioa gaindituko ez balu, berreskurapen azterketa egingo luke horretarako aurreikusten diren egunetan.</p> <p>Hiru ebaluazioen ehunekoak aplikatu ondoren, 5 baino gutxiago ateratzen duenak nahikotasuna egin beharko du. Proba horretan 5ekoa lortuz gero, kurtsoa gainditzat joko dugu. 5 baino nota altuagoa lortuz gero, nota horrek 3. ebaluaziokoa ordezkatzeko luke eta berriz ere kurtso osorako proposatuak ditugun ehunekoak aplikatuko genituzke azken nota ateratzeko.</p>					

Etengabeko ebaluazioa galduz gero, ikasleek nahikotasun proba egingen dute, legeak arautzen dituen estandarren arabera prestatuko dena.

Nahikotasun proba gainditu ezean, ekainaren erdialdean ezohiko azterketa egingo dute. Estandarren arabera prestatuko da eta notaren %100a izanen da.

KANPOKO EBALUAZIOA

Maila honetan ez dago kanpoko ebaluaziorik.